

Gestora Gipuzkoan

Euskaldunon Egunkaria, 1991-07-09: 2.

Paktoak direla eta Gipuzkoako aginteak partitu ondoren niri geratu zaidan sentipena berezia da: badakit gertaturakoa zintzoa ez dela; legala egitea lortu dute, baina morala ez; ez da, bestalde, herrian herrikoen artean soilik gertatu den zerbait, gehiegi ageri da Madrilen hartutako erabakien marka. Gure historiako "gestorak" etorri zaizkit burura, hauek hurbiltzen dute orain gertatutakoa nire sentipenera.

Errepublika 1931. Apirilaren 14an aldarrikatu zen, eta handik hiru egunera, 17an, dei egin zuten Bizkaiko Udalek, Getxoko alkate zen Agirre buru zutela, Biltzar Nagusira Gernikan. Ordurako, Goardia Zibilak eta tropak hartua zeukaten hiria ametrailadora eta guzti, eta alkateek bidean prestatu zuten agiri bat esanez: "Euskal Errepublika edo geure herria libreki ordezkaturako duen beste erakunde bat ezagutua izan dadila eskatzen dugu", eta gauza bera eskatzeko esan zioten Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako alkateei. Handik aurrera, Hego Euskal Herriko Alkateen batzordea eratu zen eta Eusko Ikaskuntzarekin batera Estatutuaren testua prestatzen hasi ziren. Prietoren *El Liberal* egunkariak eta Bizkaiako sozialistek alkateen elkarte berri honi "erreakzionari", "susmagarri" gangarra erantsi zioten: Alkateen Elkargoa eratzeko eta gero Madrilen gestioak efikazki egiteko beraiek zirela egokienak, eta ez nazionalistak. Halere, maiatzaren 2an aurkeztu zuten hauek egitasmoa Iruñean, udal nafarrak bertan zirela.

Erantzuna azkar eta erradikala etorri zen: Espainiako Gobernuak 1931.go apirilak 21eko dekretuaren bidez geure Diputazioetako buru eragile, "gestor", bere gizonak inposatu zituen. Badakit lehengoak eta oraingoak berdinak ez direla, baina antzik badute.